

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1649

101/2020 EBAZPENA, martxoaren 3koa, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Magdalena Presmanes Losada andreari errebokatzen baitzaizkio Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Zuazoko osasun-zentroan Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak.

55/2018 Ebazpenaren bidez, Magdalena Presmanes Losada andrea Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Zuazoko osasun-zentroan Lehen Mailako Arretako unitateburu izendatu zuten.

Ikusi dira ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak. Ondorioz, Zuzendaritza Gerentzia honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Magdalena Presmanes Losada andreari errebokatzea Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Zuazoko osasun-zentroan Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko otsailaren 29tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko Zuzendaritzari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2020ko martxoaren 3a.

Barakaldo-Sestaoko ESiko zuzendari gerentea,
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZARRAGA.